

## Barojaren euskalzaletasuna (1)

Deia, 1983-09-11.

Don Pio Donostian jaio zen 1872garrengo abenduaren 28an; bere anai Ricardo baino ia bi urte gero.

Askok eskatu diote Barojari gure herrian euskalzaletasun gehiago; bestalde, gure artean Barojaz gehien arduratu den idazlea, Miguel Pelay Orozco, keja da "antivasco" bezala tratatua izan delako, eta aurrez aurreko protesta gisa baiezipen edo afirmazioa nau egiten du:<sup>1</sup> "Baroja, zerbait bada, euskalduna da". Hemen egia dena zera da: ezin zaio hemendik Madrileraz zazpi urtez eramana izan zenari, hamarrek Inuñera eta bost urte barru berriz ere Madrileraz (aita, mehatzetako injeniaria zenez, han-hemenka lanak bultzatzen zion arabera) eta hemen batxilergoa egin eta gero medikuntza Valencian eta Madrilen egin behar izandu zuenari gehiegi eskatu.

Gero, medikuntza amaitzen duen bezain laster, bere gisa eskatzen du Zestuako plaza.

Hemen hasten da bere jaioterria sentitzen.

Ez du hemen, ordea, sendagile berriak asko iraungo: hamairu hilabete eskax; porrot honek mintzen du; edo mundua zegoen betidanik; ezkortasun hau berezko duela dirudi, Pelay Orozcok nolabait baiezipen du hau: Baroja, "que rechazó casi todas las etiquetas que le fueron colgando sus críticos, aceptó ésta de 'pesimista' sin la menor oposición". Idazle ospetsuaren ama berak aitortzen du, gaztedanik betitsu, latz eta elkartezina zela, ez zegoela inoiz pozik, eta medikuntza frakasatu zuen ezkerero ez zuela bila zebilenik aurkitu.

Idazle bezala, 1900an argitaratu zuen *La Casa de Aizkorri*-ri egin zioten arrera ona ikusiaz, eragin berri batek bultzata sentitu zen.

Hamabi urtean idatzi zituen liburu gartsuenak (1900-1912): aipa berria dugun Aizkorriko etxea eta honen ondoren: *Idilios vascos* eta *Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox* (1901), *Camino de perfección* (1902), *El mayorazgo de Labraz* (1903), *La busca* eta *Mala hierba* (1904), *Aurora Roja* eta *La feria de los discretos* (1905), *Paradox, Rey* eta *Los últimos románticos* (1906), *Las tragedias grotescas* (1907), *La dama errante* (1908), *La ciudad de la niebla* eta *Zalacain el aventurero* (1909), *César o nada* (1910), *Las inquietudes de Shanti Andía* eta *El árbol de la ciencia* (1911) eta *El mundo es así* (1912).

Lan handia, benetan, eta hemen, tarteka, euskal gaietakoak: Aizkorriko, Labraz, Zalacain, Idilios eta Shanti Andia.

Baina honez gero esan al genezake Baroja euskaltzalea zenik?

---

<sup>1</sup> "El vasquismo de Baroja", p. 276. *La Ruta de Baroja*. Edit. Sendo, Bilbao 1962.